

LEKEITIO DOLUMINETAN: RUFO ATXURRA HIL JAKU

Laurogeita hamar urte zituan. Behinolako euskal idazleak azaldu ebanez, gizon leberra, jasekoa, jaun aiurrikoa, noiznahi, nonahi eta nornahigaz egoki eta begirune osoz jokatzeko gertu.

Sarri-sarri ikusi dabe haren irudia lekeitiarrek. Txapela bu-ruan, han joaten zen, Abaroa kaletik gora, Eskolaperantza, edota kaialdean zehar, San Pedroren kilinkalari begira, herri baten arnasa biziari lekukotza hartzen, aspaldiko eta egunota-ko Lekeitio horreek bat egiten.

Izen-abizenek Rufo Atxurra Arrieta inotsen. Jaiotzez lekei-tiarra, bizitzaz lekeitiarra, gogoz eta aburuz euskaltzalea eta, gauza askoren gaineratik, Lekeitiozale eta ikertzaile asperrezina.

Alper-alperrik, alabaino, harenak bilatzea ospe handiko eta itxura gotorreko jakintsuen zerrendan. Txiri-txiri eta ekinean jardutekoa zan ha; berba astunetan baino, ahalegin xehe eta jarraituetan ibiltzekoa.

Eguneroko dema eban Lekeitioko aztarnak miatzea, jakin-garri ugariak batu eta gordetzea, denporaren joan-etorriek eze-reztu ez egiezan lekeitiarren gomuta aberasgarriak.

Horra, bada, gizon oso eta prestu baten ezaugarriak. Hirutan emoteak, dana dala, gogoangarriagoak egiten ditu ha-ren neke-lorrak eta ahaleginak. *Arbola fruituetarik eta gizona ekinetarik*. Halan ezagutu ohi dira beti gizakume dotore eta eragilearen itzalak eta ospeak. Horretan be, Ruforenak, jakituri-a, herrigintza ta adiskidantzan mamituak.

Jakin-mineko gizona, herri-gizona

Boladan dator gure artean norberaren herrikoak lantzea eta ezagutarazotea. Tokikeriatik harago joan eta berebiziko pisua emon eutsan bertan bertakoari, ustez —ziur, alabaino, nire eritxiz— herri bakoitzarenak moldatzen dauala Euskal Herri osoaren nortasun apartekoa.

Aurrelari izan dogu horretan Rufo Atxurra. Lan egiteko metodologia be egoki asmatu ebalakoan nago.

Badira gure herriotan halako lagun gogotsuak, herriko gauzak, albisteak, obiturak... eta abar egoki batzen dakienak. Ume-umetatik ezagutu izan dabez horreek herritarren usadioak; gero, beharbada mutikotu edo gizondu ostean, jakingarriaren zirrarak ikutu eta xehetasun-batze horretan asmotsu ibili dira.

Ez dira, lehen esan legez, etnografia, zientzia edota historia aldizkarietan eta liburu-zerrendan ageriko. Bai, oster, txukun jaso herrikoak eta datutegi baliotsua eskaini, euren atzetik datorren unibertsitateko zein bestelako azterlariarentzat.

Halan jokatu eban Rufok. Ezaugarriak bilatu, testuagaz batera argazkiak be egokitu eta, horren ostean, karpeta handietan gai eta albisteok sailkatu. Karpetak, esan beharrik ez dago, autu askotakoak dira: *Lekeitioko eliza, obiturak, jaiak, Gabonak, arrantza, ingurumariak...* Danak dira Ruforen jakin-minekoak. Hirurogeitik gorako karpeta horreek dira, izan be, berebiziko altxor historikoak eta etnografiaren gordailu preziatuak, Lekeitioko historiaren testigantza apartekoak.

Datu baliotsuak dira horkoak, gerogarrenean ikertzaile eta abarrek, lehen esan legez, erabili beharko dabezanak. Egin dagian kontu irakurleak; berehala igarriko dau Ruforen eragina, azken aldiotan Lekeitioari buruz izan diran erakusketa askotan. Materiala batzeko, aholku onak emoteko, mota guztietako xehetasunak eskaintzeko... Beti hor Rufo Atxurra. Nahiz uniber-



Rufo Atxurra - Andres Urrutia

tsitateko jakintsua, nahiz herritar soila, biontzat eukan harek berba gozo eta esanguratsua.

Lana egiteko tenorea be ezin hobeto txandakatu eban Rufok. Kalean, lekeitiarrendandik gertu, daturik nimiñoenak be batu, eta gero papereratu, horreei jagokezan argazkiak ahaztu barik. Aspaldikoak edo oraingokoak, hamaikatxo argazki izan ditu Rufok batukizun. Haren karpetetan izan dabe horreek habiatokia eta jakinguratsuei kuku egiteko abagunea.

Aspaldiko albisteak, edozelan be, une bateko arreta berezia hartu leike entzule jakinguratsuaren aldetik. Eguneroko bizitzak, ostera, berehalakoa eta hur-hurrekoa ekartzen deutsa hari, hantxe daukalako kezka bizieneren eta arduratsuenen gunea.

Horretan be, adi-adi gure Rufo. *Zer ikusi, ha ikasi*. Halan dino atsotitzak. Ikusitakoaren gainean, ikasteko egarria be begi-bistan haren ekimenetan. Ez hori bakarrik, etorkizunari buruzko intziriak be, gertu-gertu Reforentzat. Lekeitioko geroak nondik bideratu. Hortxe herriaren bizimodua, harek beti ezpainenetan eukana.

Arrazoiak zituan kezka horreetarako. Ezagunak jakozan oraingo ez moduko en aldiak, iraultza handikoak, gizakumeak giza otso ibili ziranekoak. Gerra zitala zan haren mugarri eta jo-puntua, herria erro-errotik zatitu eta birrindu ebana. Tamalezko negarrak eta alkarregazko gorrotoak etorri ziran orduan lekeitiarren arlor.

Ondoren, lan egin beharra, autobusetako ardura hartuta. Askok ezagutu dabe Lekeitiotik Gernikara, Gernikatik Bilbora gure Rufo Atxurra, autobusetako arduraduna. Zaharsaritzearen hurrengo, jarraian eta bete-betean, bere betiko datu-batze lanari ekin eutsan. Bazituan, horreetarako, lagun eta adixkide minak.

Laguna eta adixkidea

Bizitzaren lehen aldietan izaten dira giza seme-alabeen bizitzaldi erakargarrienak. Halan esan ohi da eta halan baieztatzen dabe askoren biografiek, norberaren eskarmentutik hasita.

Rufok be, adixkide eban beste lekeitiarra, Eusebio Erkiaga, euskal letretan ezaguna eta mirestua.

Gazte izan eta sarritan ibiliko ziran hareek txoritan edo arrantzan, Zita enperadoresa austriarra Uribarren jauregitik itsasoari begira bizi zala.

Eskola, dotrina, elizkizunak. Artean, handik ebilzan euskalgintzaren hainbat protagonista: Azkue abadea, Eguzkitza aba-

de lemoarra... Horrela hazi ziran adixkideak, umekondo izate-
ari itzi eta gaztaroan sartuta.

Bazan ordurako zabaldua Eusko Alderdi Jeltzalearen me-
zua. Lekeitioko Batzokia, Primo de Riveraren agintaldiaren
ondoan, agudo berrantolatu eta gazte aldra kementsua lane-
an jarri.

Hantxe Rufo, hantxe Eusebio. Abertzale eta mendigoizale
porrokatuak, antzerkigile finak, euskaltzaletasunaren aposto-
luak batera eta bestera.

Geroak eta beharrak banandu zituan bi adiskideok. Eurok,
halan da guztiz be, hartu-emonetan eta lotura sendoetan. Rufo
Lekeition eta Eusebio Bilbon; bi-biok barru-barrutik bat eginda.

Aukera ederra izan neban nik, Rufori esker, bion arteko es-
kutitzak, oharrak eta abarrekoak irakurtzeko. Zirrara garri oso,
bestalde, bi lagunen arteko adiskidantza, biok ebakuntzapean
eta Bilboko klinika banatan zirala, batak besteari mezu egile,
bertsoaz nahiz berbalauaz.

Rufok be Eusebioren lanak Lekeition bertan zabaldu. Gero,
eguneroko lanetik askatuak, Eusebioren artikulu eta jakingari-
ak uztartu, halako karpeta baten, danon jakingarri.

Osterantzeko adiskidantzak be euki zituan Rufok. Besteak
beste, eta norberari jagokonez, ezin ahaztuzko oroitzek eroa-
ten nabe bizitzaren hamalau-hamabost urteko aldiotara.

Orduantxe ezagutu neban Rufo eta orduantxe be, euskara-
ren aldekotasun sutsua haren esanetan. Euskara behar gen-
duan gazteok; euskara ikasi beharra geunkan.

Harenari men egin eta bera bitartekari zala, Eusebio Erkiaga
euskal idazlearekin autuetan jarduteko aukera izan neban.

Hartu-emonok lotu ninduen Rufogaz. Lotura horrek ekarri
eban, gerokoan be, eta lagun-mina izateagaz batera, nire za-
lantzak, galderak eta abar beti adeitsu hartzea, erantzun zeha-
tzak emoteko.

Bera izan zan, neurri handi baten, Eusebio Erkiagaren lanak batzera bultzatu ninduana. Berak ondu eban 1988. urtean Lekeitioko herriak Erkiaga idazleari egin eutsan omenaldirako artikulu-sorta.

Sorta hori ez ezik, gidaliburu erakargarria eta ezinbestekoa be eskuratu eustan, hau da, berak Erkiagari buruz ondutako karpetatxoa.

Ha itzuliaz batera, nire lanaren kopia bialdu neutsan. Gero, joan daneko abuztuan, Erkiagaren prosa lanak batzen dituan lehen liburua etxera eroan neutsanean, hantxe egoan gure Rufo, abegikor, adiskide, jardunerako prest.

Arnas estuka, nekatuta ikusi neban. Buru argi eta esatari egoki, beti legez. Kexu zan, gorputza, hankak makaldu jakozalako. Alaba baten etxean egoan, Santa emaztea hil jakonetik. Haren alboan seme-alabak, Rafael, Begoña eta María Rosario. Kezka eukan, edozelan be, bere lanena, bere egiteko premia-tsuenena.

Luze jardun genduan. Nekaturik ez etc egoan galdetu neutsanean, aulkitik altxa, gelara joan eta bi liburu luzatu eustazan: lehena, tankera mardulekoa, Lekeitioko argazki aspaldikoe osatua. Halakoa atondu eben herritar batzuek Ruforen karpeta-osagaiekaz. Bestea, kutunagoa, gure bion arteko autuetan maiz aitatu genduana. Aita Basabe jesuita lekeitiarraren liburu-txoa, lehen jaun-hartzeaz batera Rufok batu ebana.

Egundo be ez dot hori ahaztuko. Aita Kandido Basaberen gomuta izan genduan biok ostera be, lekeitiarrek euren historia ahaztu behar ez dabelako seinale. Etorriko al dira holakoak!

Agur, Rufo, egun handirarte!

Gizonak heriotzea zor dau. Halan izan da beti. eta halan da gaur egunean be.

Heriotza, esan beharrik ez dago, ez zan Ruforentzako arazo nagusia, txikitan hartutako fedea beragaz cukalako. Txikitan

ikasitakoa, gizon helduan sakondu eta lagungarri izan dau azken arnasa arte.

Heriotza ondoko elizkizuna izan da horren berreslea. Herritarrak eta kanpotarrak bertara batuta, abagune ezin aproposagoa izan genduan guztiok gure adiskideari azken agur samina emoteko.

Barruko dardara, bizi-bizia, Ruforen gorpuari oles egitean:

Agur, egun handirarte!

Kanposanturako bidean, hil aurreko egunetan Rufok seme-ari esandakoa gogoratu dot. Otoion ikusten eban harek bere burua, zerua eta itsasoa bat eginik. Hantxe bertan, aparteko leku horretan, olerki doinuak sumatu ditut une batez. Beharbada, Eusebiok, gozo-gozo eta egoera barriaren iragarle, Rufori -*Urrupo* adixkideari- daragoio:

*Neke jardunen mordo handiez
aparteko irabazian,
"ekin degiogun nekeari;
atsedena... Parusian."*

Andres Urrutia